

DIRU ITURRIAK

Gure proiektuan funtsezkoa da bezeroak eskaintzen ari garen zerbitzuagatik zenbat eta nola ordaintzeko prest dauden zehaztea. Gure bezero nagusiak esperientzia kultural autentikoak bilatzen dituzten turistak dira, eta prest daude balio handiko esperientzia gastronomiko eta sozial baten truke ordainketa egiteko.

Diru-sarreraren eredia batez ere ordainketa bakarreko diru-sarreretan oinarritzen da, bezero bakoitzak esperientzia bakoitzeko ordaintzen baitu. Ez da ordainketa errepikakorreko zerbitzu bat, baizik eta unean-unekoa, baina balio handikoa.

Enpresak diru-sarrerak sortzen ditu esperientzia gastronomikoaren salmentaren bidez. Esperientzia horrek tokiko produktuekin plater tradizionalak sukaldatzea, bertako gazteekin denbora partekatzea eta euskal kultura, musika eta historia ezagutzea barne hartzen ditu, txoko moderno eta informal batean. Gainera, diru-sarrera osagarriak lor daitezke edari berezien salmentarekin, talde pribatuentzako esperientzia pertsonalizatuekin eta turismo-plataforma edo agentziekin egindako lankidetzen bidez, komisioren bitartez.

Prezioei dagokienez, hasieran prezio finko bat ezarriko da pertsonako, esperientzia osoa barne hartzen duena. Etorkizunean, aukera egongo da prezio dinamikoak aplikatzeko, denboraldiaren edo eskariaren arabera.

Garrantzitsua da proiektuaren diru-sarrera nagusiak argi eta zehatz definitzea, baita bakoitzak izango duen pisua ere, ebaluazio-batzordeak eredu ekonomikoaren koherentzia baloratuko baitu. Hasierako inbertsioa txikia denez, esperientzien salmentatik lortutako diru-sarrerak izango dira inbertsio hori berreskuratzeko bide nagusia.

Gure kasu praktikoan, esperientzia gastronomikoaren salmenta da diru-sarrera iturri nagusia, eta esperientzia hori bakarra, pertsonala eta benetakoa izateak balio handia ematen dio bezeroarentzat.